

Ezusterik ezean, ez da txosnarik izango

Udalak iazko bikoitza ordaintzeko eskatu die



2000. urteko sanferminetan paratutako barraka politikoak. JOXE LACALLE

Duela 26 urtetik hona txosnak paratu dituzte zenbait elkarterek sanferminetan. Barraka politikoen eremua esaten diote kolore eta izaera ezberdineko taldeak biltzen dituen eremuari. Han biltzen den jendea ere askotarikoa da eta giro berezia sortu izan da gune horretan. Aurten, baina, sanferminetan txosnarik izango ez dela iragarri zuten barraken batzarrak edizio hau ixtekoa zenean.

Iruñeko Udala eta barraka politikoen elkarteak ez dira bat etorri eta azken orduko ezustekorik ezean, iruñearrek ez dute Yangua eta Mirandan txosnarik jarriko. Tasean arloan sortu dira bereziki konponezinak, barraken batzarrak jakinarazi zenez. Udalak kopuru bikoitza ordaintzeko eskatu die aurten txosnei eta adostasuna iriste zaila izango zela iritzita

hartu du batzarrak txosnak ez jartzeko erabakia. Batzarraren iritziz, «Udalak argi dauka sanferminetan herri mugimenduek ez dutela tokirik, eta administratiboki eta ekonomikoki itotzeko trabak bakarrik jarri dizkigute».


Hala, Udalaren jarrera salatzeke hainbat ekintza egin ziren joan zen astean zehar, barraka politikoen batzarrak deituta. Iragan larunbatean, esaterako manifestazioa egin zuten Yanguas eta Mirandan, *Iruñeak ez du merezi* lelopean. Txosnen lekuak markatu zituzten, joan zen aste hasieran, eta kontzentrazio zaratuak ere deitu zituzten, «iruñearren desadostasuna agertzeko». Horrez gain, milaka sinadura bildu zituen barraken batzarrak, Iruñean, jaiak hasi aurreko astean.

Bilakaera


Langabeen talde batek jarri zuen lehendabiziko txosna Santa Ana plazan, 1976an. Hurrengo urtean hainbat elkarte batu ziren sustatzaileen ideari: talde ekologistak, Alderdi Komunista, Euskadiko Ezkerra...


Urteak aitzina egin ahala indarra hartu zuen ekimenak eta 80ko hamarkadan jaigune alternatiboa bihurtu zen. Leku aldaketa aunitz izan ditu barraka politikoen eremuak. Santa Plazan hasi eta gerora, Takoneran eta Baiona etorbidearen inguruetan izan dira. Azken bederatzi urteetan, berriz, Yanguas eta Mirandako apartokalekuan paratu dituzte barrakak. Aurten, ordea Udalak Arrosadiako bazter auzoko Plan Sur orubera eraman nahi zituen barrakak.

★ Euskal Herriko areto guztietako filmak
★ Estreinaldiak ★ Kritikak
www.Egunkaria.com/zinema

84*  **TABERNA**
Jarauta kalea, 84 IRUÑEA

CASAJESUARI
San Agustin, 21 Iruñea

Terraza Lorategia

Caballo Blanco
Iruñeko Txoko Politena


EZKIA Taberna
Zure etxea bezain egokia
Navarrería, 10 • IRUÑEA

bar pamplonica

Jarauta • IRUÑEA

BASAJAUN OSTATUA

Euskal Presoak EUSKAL HERRIRA
ERROTXAPEA

ERBURU
taberna - jatetxea
San Lorenzo, 10-21
Tel.: 948 225 169
31001 IRUÑEA

LEIHO
kafea
Jabier, 7 IRUÑEA


ARITZA
TABERNA
Jai Zoriontsuak!
Jarauta, 6 • Tel.: 948 22 06 63 • IRUÑEA

ASKARTZA

TABERNA JATETXEA OSTATUA
GOZARIAK • BAZKARIAK • AFARIAK
San Lorenzo, 39 - ALDE ZAHARRA - ☎ 948 229 123 - IRUÑEA